

**ENERGIAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA**

**ENTE VASCO  
DE LA ENERGÍA**



## **Jokabide Kodea**

**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA**

**Bilbo, 2018ko martxoaren 7a**

## **AURKIBIDEA**

### **Orr.**

<b>1. SARRERA ETA APLIKAZIO EREMUA</b>	<b>4</b>
1. artikulua.- Xedea	4
2. artikulua.- Betetze betebeharra. Hartzaileak	4
<b>2. MISIOA, IKUSKERA Y HELBURUAK</b>	<b>5</b>
3. artikulua.- Misioa	5
4. artikulua.- Ikuskera	5
5. artikulua.- Helburuak	6
<b>3. PRINTZPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE ARAUAK</b>	<b>6</b>
6. artikulua.- Jokabide profesional osoa izatea	6
7. artikulua.- EVE Taldean onartutako legeak, barruko arauak eta kontratuak errespetatu	7
8. artikulua.- Pertsonen errespetua	8
9. artikulua.- Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza	9
10. artikulua.- Segurtasuna eta Osasuna Lanean	9
11. artikulua.- Intimitatea babestu. Izaera pertsonaleko datuen erabilera	9
12. artikulua.- EVE Taldearen aktibo eta baliabideen erabilera arduratsua	10
14. artikulua.- Segurtasun informatikoa eta jabetza intelektual eta industrialaren babesa	11
15. artikulua.- Informazio Konfidentzialaren tratamendua eta babesa. Sekretu profesionala	11
16. artikulua.- EVE TALDEko ondare errealitatean egiazkotasuna eta zehaztasuna	12
17. artikulua.- Administrazio Publikoekin betebeharrak betetzea	13
18. artikulua.- Ustelkeria pribatu eta publikoaren prebentzioa, eta influentzia-trafikoa	13
19. artikulua.- Harremanak Hornitzaile eta Interesdunekin	14
20. artikulua.- Herritarrekiko harremana	15
21. artikulua.- Ingurumenaren babesa	15
22. artikulua.- Interes Gatazkak	15
23. artikulua.- EVE Taldearen irudia eta izena sustatu	16
24. artikulua.- Etengabeko formazioa	17
25. artikulua.- Kanpoko ekintzak	17
<b>4. KODEA APLIKATZEA</b>	<b>17</b>
26. artikulua.- Indarrean sartzea	17
27. artikulua.- Jokabide Kodearen interpretazioa	18
28. artikulua.- Betetze Batzordea	18
29. artikulua.- Ez betetzea eta Kanal Etikoari jakinaraztea	18
30. artikulua.- Komunikazioen konfidentziasuna eta errepresalien debekua	19
31. artikulua.- Jakinarazpenak tramitatzea	19

Zenbatgarren berrikusketa	Data	Berrikusketa
01	2018.03.07	Lehen proposamena

## 1. SARRERA ETA APLIKAZIO EREMUA

### 1. artikulua.- Xedea

1.- **ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA**ren (EVE) helburua da bere jokabidea eta osatzen duten Pertsonenak indarrean dagoen legediari erantzutea eta baita jokabide kode honetan zehaztutako Printzipio Etikoei ere.

2.- Jokabide Kode hau EVE Taldeko Antolaketa eta Kudeaketa Ereduaren barruan kokatzen da, eta azken helburu bezala dauka:

a) EVE Taldean lan egiten duten Pertsonen gidatzaile bezala balio izatea euren jardunean eta EVE Taldeko beste Pertsonekin izan beharreko harremanetan, hala nola, Hornitzaile, Interesdun, Administrazio Publiko eta gizartearekin orokorrean.

b) Delituzko portaerak eta Pertsonen zilegi ez den edozein portaera prebenitu euren jarduera profesionala betetzean.

3.- Jokabide Kode hau 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituenaren (aurreratzean, “**1/2014 Legea**”) eta bere garapen araudiaren arabera ezartzen da. Araudi hau aplikagarri zaie 1/2014 Legeko 2. artikuluko karguren bat duten EVE Taldeko Pertsonen (aurreratzean “**Kargu Publikoak**”).

4.- Jokabide Kodeak EVE Taldean dagoen enpresa kultura finkatzea ere bilatzen du. Jokabide Kodeak EVE taldearen konpromisoa jasotzen du bere Printzipio Etikoetikiko Jarduera burutzeko egin beharreko ekintza guztietan. Jarraian Printzipio Etiko bakoitzaren edukia garatzen da eta Jokabide Araudi bat ezartzen da EVE Taldeko Pertsonen guztien portaera etiko eta arduratsua bermatu ahal izateko.

5.- EVE Taldeak ez du Jokabide Kode honen aurkako ekintza bat bera ere onartzen. Jokabide Kode honetan zehaztutako Printzipio tikoek aplikazio errealak eta eraginkorra izan dezaten zainduko da eta ez betetzeak Betetze Batzordeak kudeatuko ditu Kanal Etikoaren bidez.

### 2. artikulua.- Betetze betebeharra. Hartzaileak

1.- Jokabide Kodean eta hau garatzen duten Protokoloetan jasotako Printzipio Etikoak eta jokabide arauak EVE Taldea osatzen duten Pertsona guztientzako derrigor bete beharrekoak dira, beren hierarkia maila eta kokapen geografiko edo funtzionala edozein izanda ere.

2.- EVE Taldea osatzen duten Pertsonak Jokabide Kode hau eta bertako Printzipio Etikoak ezagutu eta betetzeko betebeharra daukate.

3.-Gainera, Jokabide Kodea Kontrolpeko Sozietateei aplikagarria da eta ahal den neurrian EVE Taldean parte hartzen duten gainerako sozietateei ere bai.

4.- Jokabide Kodea ahal den neurrian EVE Taldeko Hornitzaile eta Interesdunei zabalduko zaie.

5.- Jokabide Kodea EVE Taldeak garatzen dituen ekintzei aplikatuko zaie ahal den guztian edozein eremu geografikotan, bai Euskadiko Autonomia Erkidegoan bai bertatik kanpo.

## **2. MISIOA, IKUSKERA Y HELBURUAK**

### **3. artikulua.- Misioa**

1.- EVEren misioa da:

- a) Euskadiko energia estrategiak proposatzea, horniketa-bermearen, kostuetan lehiakortasunaren, iraunkortasunaren eta garapen teknologikoaren irizpideak aintzat hartuta.
- b) Estrategien garapenean parte hartze aktiboa izatea eta horietan zehaztutako helburuak lortzen laguntzea.

2.- Horretarako Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak sailari aholku eta zerbitzuak ematen dizkio eta energiaren eta geologia-meatzaritza baliabideen gaitan lanak egiten ditu. Horretaz gain, erakunde eta enpresak suspertu eta inplikarazteko, zenbait egitasmotan hartzen du parte eta haren estrategiak gidatzen dituzten balioak eta irizpideak zabaltzen ditu gizartean.

3.- Pertsonen lidergoan, konpromisoan eta kualifikazio teknikoan oinarritzen da EVEren jardun gaitasuna. Horrekin batera, dituen baliabideen planifikazioan eta kudeaketa eraginkorrean datza gaitasuna.

### **4. artikulua.- Ikuskera**

EVEk erreferentzia erakunde izaten jarraitu nahi du energiaren alorrean, energia-eraginkortasuna hobetzeko, energia berriztagarriak sustatzeko eta horniketa-bermea bideratzeko egiten duen lanari esker. Era berean, Euskadi energiaren alorrean ezagutza-gune gisa eta industria erreferentzia

kokatzeko lidergoa sendotzen jarraitu nahi du. Horretarako, jardun hau garatzen du:

- a) Ikuskera horrekin bat datozen interes taldeekin batera, proiektu bereziak sustatzen ditu.
- b) Egiten dituen energiaren alorreko inbertsioen bidez merkatu-aukerak sorrarazten ditu, Euskadiko enpresa ehunak aprobeztatzeko.
- c) Energiaren inguruko balioetan gizarteari irizpideak ematen dizkio.
- d) Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak Sailaren plan eta helburuak betetzen laguntzen du.
- e) Lankidetzaren bitartez.

### **5. artikulua.- Helburuak**

EVEren helburuak dira jarraian aipatzen diren Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak sailaren espektatibak betetzea:

- a) Energia
  - Energia aurrezten laguntzea.
  - Energia iturri berriztagarrien bidezko sorkuntzan laguntzea.
  - Energia horniduraren segurtasunari eusten laguntzea.
- b) Garapen teknologikoa
  - Euskadi energiaren alorrean ezagutza-gune gisa eta industria erreferentzia kokatzea.
- c) Baliabide ekonomikoak
  - Autofinantzaketa bermatzeko baliabide ekonomikoak lortzea.
- d) Gizartea
  - Definitutako estrategiarekiko koherentziaz balioak eta gizarte iritzia zabaltzea edo sortzea.

## **3. PRINTZIBIO ETIKOAK ETA JOKABIDE ARAUAK**

### **6. artikulua.- Jokabide profesional osoa izatea**

1.- EVE Taldeko pertsonen jokabidea profesionaltasun eta osotasunean oinarritu beharko da.

- a) Profesionaltasuna portaera arretatsua, arduraduna, zentzuduna eta eraginkorra da. EVE Taldeko Kargu Publikoen kasuan, honek ere esan nahi du inplikazio handiz eta zerbitzu publikorako ardura osoz beteko dituztela beren eginkizunak, eta soil-soilik aginduta dauzkaten eginkizunen xederako.
- b) Osotasuna portaera leiala, zintzoa eta fede onekoa da, norberekiko eta besteekeko errespetuduna jarduera profesionala burutzean, Pertsonarengan jarritako konfiantzarekin bat datorrena. Bereziki, EVE Taldeko Kargu Publikoek inpartzialtasun-, ekuanimitate- eta objektibotasun-printzipioak errespetatuko dituzte, eta irizpide independentea izango dute, interes partikular oro baztertuz.

2.- Pertsonak Jokabide Kode honetan ezarritako printzipio etikoak aplikatuko dituzte norberekiko eta besteenganako eta ez dute euren jarduera profesionala agindutakoa ez den beste helburutara bideratuko.

3.- EVE Taldeko Kargu Publikoek, jarraian datozen artikuluetan ezarritako Printzipio Etikoak eta Jokabide Arauez gain, 3/2013 Ebazpenean, maiatzaren 28koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena<sup>1</sup>, datorren Etika eta Jokabide Kodigoko Balore eta Printzipioak errespetatu beharko dituzte. Jokabide Kodigo honetan ezarritako Printzipio eta Jokabide Arauak aipatutako ebazpenean datozen Balore eta Printzipioekin bat datoz.

## **7. artikulua.- EVE Taldean onartutako legeak, barruko arauak eta kontratuak errespetatu**

1.- Pertsona guztiek indarrean dauden legeak errespetatu beharko dituzte euren jarduera profesionalak garatzean EVE Taldea aritzen den lurralde guztietan.

2.- Pertsonak Jokabide Kode hau bete beharko dute, baita EVE Taldeko Antolaketa eta baita Kudeaketa Eredua osatzen duten Protokoloak ere.

---

<sup>1</sup> **Oharra:** 3/2013 Ebazpena, maiatzaren 28koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako honako erabaki hau argitara emateko dena: Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea onartzen duena.

3.- Horrez gain, Pertsonak EVE Taldeak hirugarrenekin egindako kontratu harremanetan bere gain hartutako betebeharrak errespetatu beharko dituzte, bai eta jarduera profesionala burutzen duten herrialdeetako erabilera eta praktika onak ere.

4.- EVE Taldea lotzen duten legeak, Jokabide Kodea, Protokoloak edo kontratuak ez ezagutzeak, ez dute justifikatuko horiek ez betetzea.

5.- Jarduera profesionalean EVE Taldean indarrean dagoen Legea, Jokabide Kodea, Protokoloak eta kontratuaren aurkako jarraibideak edo aginduak jasotzeak ez die erantzukizunik kentzen jarraibide edo agindu horien arabera ekiten duten Pertsonari.

6.- EVE Taldeari lotzen dioten legedi, Jokabide Kode, Protokolo edota kontratuen aurkako argibide edo aginduak jasotzen badira, Pertsonak konfidentziasunez egoera hori jakinarazi beharko dute Kanal Etikoaren bidez.

7.- Zuzendariak eta Pertsona taldeak kudeatzen dituztenek egin beharrekoa:

- a) Dagokien jardueraren arloan legea, Jokabide Kodea, Protokoloak eta kontratuak hobekien ezagutzen dituztenak izatea.
- b) EVE Taldean jokabidean erreferenteak izatea.
- c) Euren ardurapean dauden pertsonak EVE Taldeari eragiten dioten legeak, Jokabide Kodea, Protokoloak eta kontratuak ezagutu eta betetzea ahalbidetuko dien informazioa eta formazioa jasotzen dutela zaindu eta ziurtatu.

8.- Arau edo kontratu baten aplikazio eta interpretazioaren zalantzarik izanez gero, Pertsonak zuzeneko arduradunarekin kontsultatu beharko dute eta azken aukera moduan, EVEko Betetze Batzordearekin.

## **8. artikulua.- Pertsonen errespetua**

1.- Pertsona guztiek sustatuko dute maila profesional guztietan elkarrekiko errespetua, osotasuna, zintzotasuna, konfiantza, lankidetzeta eta esfortzua taldean lan egitean, laneko giro ona lortzeko helburuarekin.

2.- Ez dira onargarriak eta ez dira lanean jasango errespetu faltak, irainak, difamazioak, beldurrarazte, abusu, jazarpen eta edonolako eraso psikologiko, fisiko edo sexualak.



3.- Pertsona taldeak kudeatu edo zuzentzen dituztenek, dauzkaten baliabideekin, egoera horiek ez gertatzea bermatu beharko dute.

### **9. artikulua.- Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza**

1.- EVE Taldean jarduteko Printzipio Etiko bat da lana lortzeko eta laneko promozioan aukera berdintasuna eskaintzea, horretarako sexua, orientazio sexuala, arraza, jatorria, nazionalitatea, ezgaitasuna, gaixotasuna, erlijioa, iritzi politikoak, estatu zibila, baldintza pertsonal edo sozial, edota diskriminazio iturri izan daitekeen beste edozein ezaugarriengatik ezberdintasunik egingo ez dela ziurtatuta.

2.- Ondorioz, kontratazio, promozio eta hautaketa profesional prozesuetan parte hartzen duten EVE Taldeko Pertsonak objektibotasunez jardungo dute beren ekintza eta erabakietan, behar den posturako egokien diren pertsonak identifikatuz eta aukera berdintasuna sustatuz.

3.- Bereziki, EVE Taldeko Kargu Publikoek genero-berdintasuna sustatuko dute eta berdin tratatuko dituzte egoera berean dauden pertsonak, diskriminazio oro saihestuz.

### **10. artikulua.- Segurtasuna eta Osasuna Lanean**

1.- EVE Taldearentzat lehentasunezko helburu bat da Pertsonentzat lan ingurune eroso eta segurua lortzea, era iraunkorrean lan baldintzat hobetu ahal izateko.

2.- Pertsonen euren jardun profesionalerako beharrezko segurtasun neurriak, ergonomia eta higienarako bitartekoak eskainiko zaizkie, Pertsonen bizitza, osasuna eta osotasun fisikoa arriskuan jarri ez dadin.

3.- Pertsonak une oro errespetatuko dituzte laneko segurtasun eta osasuneko prebentzio neurriak, EVE Taldeak ezarritako baliabideak erabilita eta lantaldeetako kideek euren jarduerak segurtasun baldintzetan egiten dituztela ziurtatuta.

### **11. artikulua.- Intimitatea babestu. Izaera pertsonaleko datuen erabilera**

1.- EVE Taldeak Pertsonen intimitate eskubidea errespetatzen du, bere adierazpen guztietan, bai eta Internet bidezko edo beste komunikabideetatik Pertsonak dituzten komunikazioak ere. Bereziki, pribatutasuna eta datu pertsonalen eskubideak errespetatuko dira.

2.- Ondorioz EVE Taldeak izaera pertsonaleko daturik ez zabaltzeko konpromisoa hartzen du horretarako interesatuen baimena eta lege

derrigorrezkotasuna dagoenean izan ezik. Izaera pertsonaleko datuak sekula ezingo dira erabili lege helburu edo kontratua aurreikusitakoetatik helburu ezberdinetarako.

## **12. artikulua.- EVE Taldearen aktibo eta baliabideen erabilera arduratsua**

1.- EVE Taldeak Pertsonen eskura jartzen ditu jarduera profesionalerako beharrezko aktibo eta baliabideak, horien artean EVE Taldearen komunikazio baliabideak, baita telematikoak ere, sistema eta ekipo informatikoak, baliabide teknologikoak, jabetza intelektuala, jabetza industrial, enpresa sekretuak instalazioak eta baliabide finantzarioak.

2.- Pertsonak EVE Taldeko aktibo eta baliabideak erabilera desegokitik babestu eta zaindu beharko dituzte eta galdu, kaltetu, lapurreta edo EVE Taldearentzako kalteak eragin ditzakeenak ekidin.

3.- Pertsonak EVE Taldeko aktibo eta baliabide horien erabilera arduratsua egingo dute, erabilera hori EVE Taldeko Protokolo, arau eta jarraibideen arabera izanik, euren jarduera profesionala eraginkortasunez bete dezaten, EVE Taldeak bere esku jarritako denbora, aktibo eta baliabideak errentagarri eginda. EVE Taldeko funts edo txartelak ere ez dira erabiliko jarduera profesionaletik kanpoko ekintzak ordaintzeko.

4.- EVE Taldeko aktibo eta baliabideak helburu pertsonaletarako erabiltzen diren kasuetan, erabilpen horrek gutxienezkoa, zentzuzkoa, egokia eta fede onaren printzipioaren arabera izan beharko du.

## **13. artikulua.- Kalitate instituzionala**

1.- EVE Taldeko Kargu publikodunek eta parekatutakoek baliabide publikoen eraginkortasuna eta efizientzia bilatuko dute, agindutako zerbitzu publikoaren kalitatea eta jasagarritasuna bermatuz.

2.- EVE Taldeko Kargu Publikoek beren eginkizunak beteko dituzte, beti, ikuspegi estrategikoari eta planifikazioari lehentasuna emanaz, arazoaren eta etorkizuneko erronken irtenbidea aurreikuste aldera.

3.- EVE Taldeko Kargu Publikoek sormena eta berrikuntza sustatzen dituen kultura-molde bat ezarri eta sustatu beharko dute, bai erakundearen bertan bai dagokien sailean ematen diren zerbitzuetan.

4.- EVE Taldeko Kargu Publikoek estrategiak, helburuak eta baliabideak ildo beretik joatea bilatu beharko dute goi-mailako zuzendaritzako maila politikoak eta zuzendaritzako nahiz bitarteko mailak aintzat hartuta, eta, halaber, dagokien erakundearen lan egiten duten gainerako pertsonak ere.

5.- EVE Taldeko Kargu Publikoek karguari lotutako eginkizunak etengabeko ahaleginaz bete beharko dituzte, gidatzen duten saileko edo unitateko prozesuen, produktuen eta zerbitzuen emaitzak beti hobetzeko eta pertsonen gaitasun profesionalak garatzeko.

#### **14. artikulua.- Segurtasun informatikoa eta jabetza intelektual eta industrialaren babesa**

1.- Aktibo eta baliabideak gaizki edo zuhurtzirik gabe erabiltzeak EVE Taldea eta osatzen duten Pertsonentzako arrisku larria dauka. Beraz, EVE Taldeak segurtasun informatikoa zaindu eta software ez baimenduaren erabilera debekatzen du eta erabilera ilegala den edo sistema informatikoen segurtasunean edozein elementu arriskutsu sartzeko arriskua daukaten programa edo aplikazioen deskarga, instalazio eta erabilera debekatzen du.

2.- EVE Taldea jabetza intelektual, jabetza industrial eta enpresa sekretuak babestearekin konprometitu dago, bai bereak eta bai hirugarrenenak. Pertsonak beren jarduera profesionalean sortutako jabetza intelektual, industrial eta enpresa sekretuen ustiapen eskubideak EVE Taldearen titulartasun izango dira.

3.- Pertsona guztiak errespetatu behar dituzte jabetza intelektual, jabetza industrial (egile eskubideak, patenteak, erabilera ereduak, industria diseinuak, markak, jabari izenak eta bestelako eskubideak) eta enpresa sekretuen eskubideak, EVE Taldearenak direnean edo beste edozein hirugarrenenak. Beraz, Pertsona guztiak babestu behar dute eskubide horiek duten informazioa, kasu bakoitzean eskubide horien jabe legitimoen lizentziak edo baimenak bilduz.

#### **15. artikulua.- Informazio Konfidentzialaren tratamendua eta babesa. Sekretu profesionala**

1.- EVE Taldeak informazioa eta ezagutza enpresa kudeaketarako bere aktibo nagusi eta ezinbestekotzat jotzen du, beraz babes berezia daukate.

2.- EVE Taldeak daukan izaera ez publikoko informazioa, euskarri informatikoan izan edo beste edozeinetan, orokorrean, Informazio Konfidentzialtzat joko da. Ondorioz, EVE Taldea osatzen duten Pertsonak sekretu profesionala errespetatu behar dute. Bereziki, EVE Taldeko Kargu Publikoek beren eskumenak erabiltzearen ondorioz eta kausaz ezagutzen dituzten egitate edo informazioei isil-gordean eutsiko diete.

3.- Pertsonak Informazio Konfidentziala kontu handiz erabiliko dute eta babesteko bitarteko nahikoa jarriko dute, edukia ezin dakieke hirugarrenei

erraztu, Pertsonaren edo kasu bakoitzean EVE Taldean eskuduntza duen organoaren babes berezia edo lege errekerimendu bat egon ezean.

4.- Hirugarrenen informazioa legalki lortuko da. Pertsonak baztertu egingo dute zilegi ez den moduan edo bere jabe legitimoek mantentzen duten konfidentzialtasuna apurtuta lortutako informazioa.

5.- Informazio Konfidentziala EVE Taldeak kanpoko hirugarrenena denean, Pertsonak EVE Taldeak hirugarren horiekin harpidetuta dauzkan akordioak bete beharko dituzte.

6.- EVE Taldearekin lan harreman ohikoa edo berezia amaitzen denean, Pertsonen konfidentzialtasun betebeharra mantenduko da eta hauek Informazio Konfidentziala biltegiatutako bitarteko edo dispositiboak bueltatu beharko dituzte.

7.- Informazio Konfidentzial izaerari buruz edo zer zalantza izanez gero, Pertsonak zuzeneko arduradunarekin kontsultatu beharko dute eta azken aukera moduan, Betetze Batzordearekin.

## **16. artikulua.- EVE TALDEko ondare errealitatean egiazkotasuna eta zehaztasuna**

1.- EVE Taldeko informazio ekonomiko-finantzarioak zuzen islatuko du bere ondare errealitatea, kontabilitate printzipio orokorretan onartu eta aplikagarriak diren nazioarteko arauen informazio finantzarioaren arabera.

2.- Inork ez du ezkutatu edo desitxuratuko EVE Taldeko erregistro eta kontabilitate txostenen informazioa, egiazkoa eta zehatza izango dena.

3.- EVE Taldeak informazio fidagarria transmititzeko konpromisoa hartzen du merkatu eta gizarte aurrean oro har, EVE Taldearekiko leiala den irudia egiteko. Debekatuta dago iruzurra erabiltzea hirugarrenengan hutsegite bat bultzatu eta hauek kalte bat egin dezaten. Zehazki, Pertsonak honela jokatu beharko dute.

- a) Hornitzaile, Interesdun eta Administrazio Publikoekin, ez da EVE Taldeak ez duen kaudimen bat irudikatuko.
- b) Debekatuta dago ahalmenik gabe aritzea. EVE Taldeko aktiboak erabili, transmitu eta kargak ezartzeko ahalmenak espresuki izan beharko dira eta ezin daiteke hirugarrenen aurrean edozer karga dagoela ezkutatu.

- c) Ez da itxurarik egingo kontratazio jakin batek dituen benetako ezaugarriei buruz, bestelako errealitate bat adieraziz.

### **17. artikulua.- Administrazio Publikoekin betebeharrak betetzea**

1.- Agintariak, organismo erregulatzailleak eta Administrazio Publikoekin izan beharreko harremanak lankidetzeta eta gardentasun printzipioetan planteatuko dira. Zehazki, EVE Taldeko kargu publikodunek eta parekatutakoek beren funtzioak gardentasunez beteko dituzte, legez auresikusitakoa salbu.

2.- EVE Taldeak Administrazio Publikoekin dituen betebeharrak beteko ditu eta, bereziki, Ogasun Publikoa eta Gizarte Segurantzarekin.

3.- Guztiz debekatzen dira zerga betebeharrak edo irabaziak lortzeko Ogasun Publikoa, Gizarte Segurantza edo antzeko organismoen kalterako portaerak.

4.- EVE Taldeak ez du bere izenean edo pertsona bitartekariekin, alderdi edo hautagai politikoaren finantzazio ilegalik egingo ez dohaintza, ezta ekarpenik ere, ezta mailegu edo aurrerakin moduan ere.

### **18. artikulua.- Ustelkeria pribatu eta publikoaren prebentzioa, eta influentzia-trafikoa**

1.- EVE Taldeak ez du onartzen zilegia ez den moduan EVE Taldetik kanpo dauden pertsonen nahian eragitea irabazi edo abantailen bat lortzeko. Ustelkeria, eroskeria edo kalterako ekintzak guztiz debekatutako daude, baita zilegia ez den moduan edozein abantaila mota lortzeko eskaintza edo promesa zuzen edo zeharkakoak ere, influentzia-trafikoa barne.

2.- Beraz, Pertsonak Hornitzaile, Interesdun, Administrazio Publikoekin dituzten harremanetan portaera zuzena izan beharko dute, partikular, agintari edo funtzionario publikoaren inpartzialtasun edo lege aginduak ez betetzera eraman gabe.

3.- Opari eta erregulak EVE Taldearen irudia sustatzera daude zuzenduta. Ezingo dira opari edo erregaluak, zuzenean edo zeharka, eman edo jaso EVE Taldearen erlazioetan zilegi ez den eran eragiteko. Zehazki, EVE Taldeko Kargu Publikoek ez dute onartuko beraietzat ohiko erabileretatik gorako opariak, edota kortesiazkoak, ezta abantailazko baldintzetako mesede edo zerbitzuak.

4.- Opari eta erregaluak eman eta onartu daitezke EVE Taldeko aurretiazko baimenarekin, balio ekonomiko mugatua edo sinbolikoa dutenean eta kortesia edo arreta komertzialerako direnean.

5.- Egin edo jasotako opari eta erregaluek atal honetan ezarritakoa betetzen ez duenean ukatu edo bueltatu egin beharko dira.

6.- Ezingo dira ere eskaini, eskatu edo onartu, zuzenean edo zeharka, justifikaturik ez dauden abantaila edo onurak, gaurko edo etorkizuneko, EVE Taldearentzat, norberarentzat edo hirugarrenentzat.

7.- Zehazki, ezingo da eman edo jaso inolako eroskeriarik Hornitzaile, Interesdun, autoritate, funtzionario publiko edo alderdi politikoez.

8.- Ezingo dira ordainketak egin, diruz edo bestelako baliozko ezer emanaz, zenbatekoa edo zer izanda ere, edozein administrazio publiko, organismo ofizial edo judizialeko organo baten tramite edo jarduerak erraztu edo arintzeko.

9.- Debeku hauek dagokion partikularra, agintaria edo funtzionario publikoarekin familia edo lagun harremana dutenengana ere zabaltzen dira.

10.- EVE Taldea osatzen duten Pertsonak opari edo erregalu bat onartzearekiko zalantzak dituztenean zuzeneko arduradunarekin kontsultatu beharko dute eta azken aukera moduan, EVEko Betetze Batzordearekin.

## **19. artikulua.- Harremanak Hornitzaile eta Interesdunekin**

1.- Hornitzaile eta Interesdun aukeraketa prozesuetan aukera, kostua eta jasagarritasun irizpideak aplikatu beharko dituzte Pertsona guztiek, beti ere EVE Taldearen interesen defentsan jardunez. Betebehar hau bereziki da zerbitzu eta hornikuntza kontratazioei buruz erabakiak hartu, eta baita Hornitzaile eta Interesdunen eragiketetan baldintza ekonomikoak erabakitzen dituztenentzat.

2.- Debekatuta dago aurreko 18.7 artikuluekin bat adierazitako edozer zilegia ez den abantaila eskaintzea.

3.- Interes Gatazka bat sortuko balitz, eragiten dion Pertsonak 22. artikuluan ezarritako arauen arabera jokatu beharko du.

4.- Hornitzaile eta Interesdunek Jokabide Kode hau ezagutzea sustatuko da eta ahal den neurrian, betetzea, bertan jasotzen diren printzipio etikoen edukia hobeto aplikatu ahal izateko.

## **20. artikulua.- Herritarrekiko harremana**

1.- EVE Taldeko kargu publikodunek eta parekatutakoek pertsonen duintasunaren errespetua izango dute printzipio nagusi, herritarrak zuzentasun osoz tratatuko dituzte.

2.- EVE Taldeko Kargu Publikoek herritarrek politika publikoen diseinuan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea sustatuko dute.

3.- EVE Taldeko Kargu Publikoek herritarren hizkuntza-eskubideak baliatzea bermatuko dute, euskararen normalizazioa bultzatzea bereziki aintzat hartuta eta haren erabilera sustatuta.

## **21. artikulua.- Ingurumenaren babesa**

1.- EVE Taldeak, bere Misio, Ikuskera eta Helburuengatik, ingurumenaren babes, iraupen eta hobekuntzarekin konprometituta dago. EVE Taldeko kargu Publikoek, beren eskumenetan, ingurumenaren babesa sustatuko dute.

2.- Ondorioz, EVE Taldearen Jarduera ingurumen eraginak gutxitzeko moduan burutuko da eta bere gain hartzen du EVE Taldeko energia instalazioak hala nola Jarduera oro har modu eraginkorrean erabiltzea, baliabide naturalak mantentzeko helburuarekin.

3.- Pertsonak, bere gaitasunen esparruan, ingurumena zaindu eta lege eskakizunak betetzeko konpromiso aktibo eta arduratsua hartzen dute, bere jardueraren ingurumeneko inpaktua murrizteko EVE Taldean ezarritako gomendioak eta prozedurak jarraituta. Pertsonak EVE Taldeak bere eskura jarritako instalazioak, aktiboak eta baliabideetatik eratorritako inpaktua gutxitzeko ahalegina egin beharko dute bereziki.

4.- Zehazki isurketa, materialen biltegiatze eta lehertze arriskua duten materialei buruzko araudiak zorrotz beteko dira, eta baita gainontzeko ingurumen araudia ere.

## **22. artikulua.- Interes Gatazkak**

1.- EVE Taldeak ulertzen du bertan dauden Pertsonen erlazioa leialtasunezkoa izan behar duela amankomunean dituzten interesekiko. Ondorioz, Pertsonak Interes Gatazka guztiak ekidin behar dituzte. Bereziki, EVE Taldeko Kargu Publikoek beren funtzioekin baterazin diren egoerak, jarduerak edo interesak ekidin beharko dituzte.

2.- Interes Gatazkatzat joko da EVE Taldeko Pertsonaren baten interes pertsonala eta EVE Talde beraren interesa talkan sartzen direnean edo eraginda edo desitxuratuta geratzen denean (interes orokorra edo funtzio horri dagokion interes publikoa). Interes pertsonala egongo da gaiak Pertsonari zuzenean eragiten dionean edo Pertsonari lotutako beste bati.

3.- Pertsonari lotutakotzat joko da Pertsonaren ezkontidea edo antzeko afektibotasun harremana duen pertsona, edota laugarren mailako odolkidetasun edo kidetasun duen edozein familiakide.

4.- Interes Gaztaka egoera batean dagoen Pertsonak ahalik eta azkarren jakinarazi beharko dio zuzeneko arduradunari. Zalantzarik izanez gero EVEko Betetze Batzordearen interpretazioaren esku geratuko gara.

5.- Halaber, Interes Gatazkak eragindako Pertsonak ez du Interes Gatazkak eragindako erabakietan parte hartu edo eragingo, ezta erabaki horiek aztertzen diren bileretan parte hartuko ez intereseko gatazka horrek sortzen duen Informazio Kofindentzialik jasoko.

6.- En estos EVE Taldeko Kargu Publikoei eragiten dienean Interes Gatazkak, 1/2014 Legeko 10. artikuluan aurreikusitako prozedura jarraitu beharko da.

7.- Horrez gain, EVE Taldeko Kargu Publikoek 1/2014 Legeak ezartzen dituen bateraezintasun, jarduera, ondasun eta ondare eskubideen deklarazio arauak bete beharko dituzte.

### **23. artikulua.- EVE Taldearen irudia eta izena sustatu**

1.- EVE Taldeak izen sendoa dauka bere eskarmentu zabal eta pertsona talde fidagarri eta leialagatik, pertsona talde hau EVE Taldeko kultura osatzen duten Printzipio Etikoak eta egiten jakitearekin konprometitua daude.

2.- Pertsona guztiek zaindu behar dute EVE Taldeko irudia eta izena bere jarduera profesional guztietan. Hornitzaile eta Interesdunek ere korporazioaren irudia eta izena errespetatu eta ondo erabiltzen dutela zainduko dute.

3.- Bereziki, EVE Taldeko Kargu Publikoek, beren postu eta eskumenen barnean, EVE Taldeko izen on, duitasun eta irudian lagundu beharko dute, ekintza publiko nahiz pribatuetan.



## **24. artikulua.- Etengabeko formazioa**

1.- EVE Taldeak Pertsonen kompetentzia eta ezagutzen ikasketa, formakuntza eta eguneraketarako bitartekoak jarriko ditu, euren garapen profesionala errazteko eta Interesdun nahiz gizartearekiko oro har balio gehiago emateko helburuarekin.

2.- Pertsona guztiek egin behar dituzten EVE Taldeak bere eskura jartzen dituen formazio ikastaroak EVE Taldearen barruan dituzten funtzioak eta jarduerak hobetzeko eta formazioaren aprobetxamendurik onena ateratzeko ahalegina egingo dute.

3.- Zuzendariak eta Pertsonen taldeak kudeatu edo zuzentzen dituzten gainontzeko Pertsonak baloratu beharko dute beren kargu dauden Pertsonak zer nolako ezagutza duten eragiten dieten arauetik.

## **25. artikulua.- Kanpoko ekintzak**

1.- EVE Taldeak berau osatzen duten pertsonak jarduera sozial eta publikoak egitea errespetatzen du, beti ere bere jardun profesionalan eraginik ez badu.

2.- Zehazki, EVE Taldeak sindikatu, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa onartzen ditu lan esparruan.

3.- Pertsonak alderdi politiko edo helburu publikoak dituzten beste erakunde batzuekin, instituzio edo elkarteekin izan ditzaketen loturak pertsonalak izango dira, EVE Taldearekin erlazioa ekidinez.

## **4. KODEA APLIKATZEA**

### **26. artikulua.- Indarrean sartzea**

1.- Jokabide Kode hau indarrean dago EVE Taldeko Kontrolpeko Sozietateetako Administrazio Organoek onartu zenetik, eta indarrean mantenduko da berrikuspen, eguneratze edo ordezkaturiko duen berri bat indarrean sartu ezean.

2.- Edozein ez betetze, Betetze Batzordeari jakinarazi behar zaio, Jokabide Kode honen zaintza eta bere aplikazio zuzenaren arduraduna baita.

3.- Edozer iradokizun, zalantza edo desadostasun EVEko Betetze Batzordeari jakinarazi behar zaio, bera baita Jokabide Kodea bete eta egoki aplikatzeko eskumena duen organoa.

## **27. artikulua.- Jokabide Kodearen interpretazioa**

1.- Jokabide Kode hau eta Eredua osatzen duten edozein Protokoloen arteko desadostasunen aurrean, Jokabide Kodeak du lehentasuna. Halaber, Protokoloen interpretazioa Jokabide Kode honen espiritua eta azken helburua aintzat hartuta egingo da.

2.- EVEko Betetze Batzordeari dagokio Jokabide Kodearen interpretazioa. Bere interpretazio irizpideak derrigorrezkoak dira bere hartzaile guztientzako.

3.- Jokabide Kodearen interpretazioaren gainean sortzen den edozein zalantza Betetze Batzordeak argituko du, Betetze Zuzendariarekin (*Compliance Officer*) izandako komunikazioaren bidez.

## **28. artikulua.- Betetze Batzordea**

1.- Betetze Batzordea, EVE Taldeko Betetze Zuzendariak (*Compliance Officer*) bideratzen du eta Betetzearen funtzioa diren gai guztien arduraduna da. Betetze Batzordearen osaketa, funtzionamendua, funtzioak eta Betetze Batzordeari dagozkion gainerako gaiak Batzorde horren Erreglamentuan arautzen dira.

2.- Betetze Batzordeak Jokabide Kode, Gidaliburu eta EVE Taldearen Antolaketa eta Kudeaketa Eredua osatzen duten Protokoloak oro har landu eta proposatzen ditu. EVE Taldeko Zuzendaritza Batzordeak behin onartuta eta Kontrolpeko Sozietateak berretsita, erabat lotesleak dira Pertsonentzat.

## **29. artikulua.- Ez betetzea eta Kanal Etikoari jakinaraztea**

1.- Jokabide Kode hau ez betetzea Antolaketa eta Kudeaketa Ereduearen arau-haustea da, eta lan isunak eragin ditzake, baita administratibo edo penalak ere.

2.- Jokabide Kodearen edo Protokoloen ez betetze edo Hobetze Arlo baten berri duen edozein Pertsonak zuzenean jakinarazi beharko dio Betetze Zuzendariari Kanal Etikoaren bidez. Ezagutzen den ez betetzea ez jakinaraztea Jokabide Kode honen arau-haustetzat joko da.

3.- Legedi, Jokabide Kodea edo Protokoloen urratzen dituen gertaera bat ezkutatzea ez da ulertuko EVE Taldearen intereseko jardura moduan.

4.- Betetze Zuzendariari hurrengo bide hauetatik jakinarazi daiteke:

- Mezu elektronikoko bat helbide honetara bidaliz [canaletico@eve.eus](mailto:canaletico@eve.eus)

- Betetze Zuzendariaren izenean gutun bat bidaliz EVEren egoitzan kokatuta dagoen postontzira, Bilbon, Urkixo Zumarkalea, 36., Bizkaia Plaza Eraikuntza, 2 solairua.

5.- Jakinarazi duena Kanal Etikoan egindako komunikazioarekin erlazionatutako aurrerapenen gainean informatua izango da.

### **30. artikulua.- Komunikazioen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua**

1.- EVE Taldeak, Betetze Batzordearen betebeharren bitartez, Pertsonak Kanal Etikora egiten dituzten komunikazioen identitatearen konfidentzialtasuna bermatzen du.

2.- Kanal Etikoaren erlazionatutako komunikazio eta prozedura guztiak datu pertsonalen babeserako araudiaren eskakizunak errespetatuta kudeatuko dira. Hala ere, Kanal Etikora jakinarazpenak egiten dituzten pertsonen datuak agintari administratibo edo judizialei eman ahal izango zaizkie komunikaziotik eratorritako edozein prozeduraren ondorio moduan eurek eskatzen badituzte.

3.- Debekatuta dago EVE Taldea osatzen duen Pertsona baten aurka errepresalia edo edozein ondorio negatibo duen neurririk hartzea jakinarazpen bat egiteagatik. Jakinarazpen hori egin duenaren aurkako errepresalia Jokabide Kode honen arau haustetzat joko da eta 4. atal honetako prozedura aplikagarri izango da.

4.- Aurreko paragrafoan adierazitako errepresaliak debekatzek ez du galaraziko diziplina neurriak hartzea, barruko ikerketak jakinarazpena faltsua dela eta fede txarrez egin dela ziurtatzen badu.

### **31. artikulua.- Jakinarazpenak tramitatzea**

1.- Kanal etikoaren bidez Betetze Zuzendariak jasotzen dituen jakinarazpen guztien erregistro bat mantenduko da.

2.-Jakinarazpen bat jaso ondoren Betetze Zuzendariak EVEko Betetze Batzordeari adieraziko dio barruko ikerketa bat hasteko, jakinarazpenak funtsik ez duenean edo Jokabide Kodea edo Protokoloen inguruko gaiez ari ez denean izan ezik, Betetze Zuzendariaren ustetan. Kasu hauetan Betetze Zuzendariak jakinarazpena jaso izana eta ikerketa ez hasteko hartutako erabakiaren konfidentziaz utziko du dagokion Jakinarazpenen Erregistroan. Erabaki honek ez du galaraziko beranduago informazio gehigarria jasoz gero ikerketa bat hastea.

3.- Egiten den barruko ikerketan, Betetze Batzordeak egokitzat jotzen duen EVE Taldeko edozein sail edo negozioko informazio edo jakinarazpenak begiratu ahal izango ditu.

4.- Jakinarazpenak Betetze Batzordeko kideren bati eragiten dionean, honek ezingo du tramitazioan parte-hartu eta aurreko 22 atalean zehaztutako Interes Gatatzaren gaineko arauak aplikagarriak izango dira.

5.- Prozedura hau Betetze Batzordearen ebazpen batekin amaituko da, eta ekintza zuzentzaile edo proposamen bat izango du hala badagokio EVEko Zuzendaritza Batzordeak onartu eta Kontrolpeko Sozietateko Administrazio Organoak berresteko. Proposamenak laneko lege aplikagarriak betez dagozkion diziplina neurriak ezarriko ditu eta bereziki, Langileen Estatutua eta aplikazioko hitzarmen kolektiboak eta/edo EVE Taldea osatzen duten eta pertsonei aplikagarriak zaizkien bestelako lan arauak, hau guztia egon daitezkeen administrazio isun edo penalak kaltetu gabe.